

Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, lehen hezkuntzako ikasleengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

## **ESKOLA AGENDA 2011-2012 ARGITARATU DA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ARTEAN BANATZEKO**

Bizkaiko 25 udalerrik argitaratu dute *ESKOLA AGENDA 2010-2011* lehen hezkuntzako ikasleen artean banatzeko.

### **Kanpainaren ezaugarri nagusiak**

Ikasturte hasiera honetan euskal mitologia ardatz duen eskola agenda jasoko dute Bizkaiko hainbat umek euren ikastetxeetan. Euskal kultura sustatu eta guraso eta ikastetxeen arteko harremana euskaraz izatea dira agenda honen xede nagusiak. Bertan, Bizkaiko beste hainbat herriren berri jasotzeaz gain, euskal mitologiako hainbat ipuin eta kondaira ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatu duen proiektu honetan Bizkaiko 16 udalerrik eta mankomunitate batek parte hartu dute eta herriotako ikastetxeetan banatu dute agenda.

### **Helburua**

Eskola-agendaren helburu nagusiak euskal kultura sustatzea eta guraso eta ikastetxeen arteko harremana euskaraz izatea dira.

### **Parte hartzaileak**

Bizkaiko **16 udal** eta **mankomunitate 1**. Guztira, honako 25 erakunde hauek:

Arrigorriaga • Balmaseda • Bermeo • Elorrio • Enkarterriko Mankomunitatea • Erandio • Etxebarri • Etxebarria • Galdakao • Muxika • Mundaka • Laukiz • Maruri-Jatabe • Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz • Muskiz • Ortuella • Zierbena

### **Agendaren edukia**

Eskoletan banatuko den agenda honek Galdakaon hasi zuen ibilbidea orain dela urte batzuk. Gero Arrigorriaga eta Etxebarri ere parte hartu zuten ekimenean eta ikasturte honetan 25 udalerritako umek jasoko dute agenda. Ikasturte honetako agendaren ardatz nagusia euskal mitologia da eta euskal mitologiako hainbat ipuin eta kondaira irakurri ahal izango dituzte gaztetxoek Martin Galtzagorriren eskutik.



Agenda hau kolorez eta jolasez beterik dator. Testuak Antton Irusta haur literatura idazleak egin ditu ekimenean parte hartu duten euskara teknikarien laguntzarekin. Ilustrazioak, berriz, Enrique Morente marrazkilariak.

### Hartzaileak

Egitasmoaren hartzaileak Lehen Hezkuntzako gaztetxoak dira, 6 eta 12 urte bitartekoak.

Guztira **9400** ale banatuko dira ikasturte hasiera honetan aipatutako herrietako ikastetxeetan.